

1802.
Victor Hugoren jaiotza, otsailaren 26an.

1.814.
Napoleonen lehenengo abdikazioa. Luis XVIII-ren errege izendapena, Luis XVI-ren anaia zena.

1815.
Waterloo. Napoleonen bigarren abdikazioa.

1817.
Victor Hugoren olerkiak, lehiaketarako Frantzes Akademian aurkeztuak, aipamen berezia jasotzen du.

1822
“Odes et poesies diverses” (Odak eta zenbait olerki), Adèle Foucherrekin ezkontza.

1824.
“Nouvelles Odes” (Oda berriak). Luis XVIII-ren heriotza eta bere anaia Carlos X-ak tronua lortzen du.”

1827
“Cromwell” (drama, bere hitzaurrea erromantizismoaren adierazpentzat hartzen da) 1829.
“Les Orientales” (Ekialdetarrak), olerkiak.

1830.
“Hernani”, otsailaren, iraultza uztailean: Luis Felipe frantziarren errege izendatua. 1831.
“Notre Dame de Paris” (Parisko Andre Maria), eleberria.

1833
“Lucrece Borgia”, drama. Victor Hugo eta Juliette Droueten elkartasuna, 50 urte iraungo dituen.

1837.
Eugenio Hugoren heriotza Charentoneko zentru psikiatrikoan, Victor Hugoren anaia zena. 1841.
Lautan huts egin ondoren, Frantzes Akademiako kide.

1843.
Pirineotara bidaia. Maiorazkoa zen Leopoldina Hugoren ezkontza eta heriotza. “Les Burgraves” (Burgrabeak).

1845
Frantziako Parea. Lèonie Biarderekin izandako harremanaren eskandalua. “Les Misères” (geroago “Miserableak” izango zena) idazten hasten da.

1848.
Iraultza. Errepublikaren aldarrikapena. Luis Napoleonek, ganbera legegilean diputatu aukeratua, geroago Konstituzioan hautatua izango zena, Bonaparteren lehendakartzaren izendapenean parte hartzen du.

1851.
Hugok oposizioan parte hartzen du. Abenduaren 2an izandako estatu-kolpeari erresistentzia. Erbestertua eta polizia bere bila dagoelarik, Bruselaserantz abiatzen da, erbestearen lehenengo aroa.

1852.
“L’histoire d’un crime” –n lan egiten du (Hilketa baten istorioa) eta abuztuan “Napoleon le petit” (Napoleon txikia) argitaratzen du. Jerseyen bizitzen geratzen da. Luis Napoleoni frantziarren enperadorea izendatua da

1853.
“Les Châtiments” (Zigorrak) obraren ezkutuko argitalpena, lehenengo isilpeko argitalpena Belgikan agertzen dena.

1854.
1855.
Jerseytik kanporatzea. Guerneseyra helduera. Crimeako guda, Frantzia eta Ingalaterra Errusiaren kontra joateko elkartzeko dira.

1856.
“Les Contemplations” (Kontemplazioak), olerkiak. Hugok Hauteville etxea erosten du.

1859.
“La légende des siècles” (Mendeetako Kondaira), lehenengo saila.

1860.
“Les Misérables” (Miserableak) idazteari berriz ekiten dio. 1861.
Kontinentera lehenengo bidaia 1852. urteaz geroztik, Juliette Drouetekin.

1862.
“Les Misérables” obraren argitalpena. (Miserableak).

1865.
“Les travailleurs de la mer” (Itsasoko langileak) eta “Les Chansons des rues et des bois”(kaleetako eta basoetako Abestiak)

1868. Bere emaztea hiltzen da.

1869.
“L’homme qui rit” (Barre egiten duen gizona).

1870.
Frantzia eta Prusiaren arteko guda. Irailaren 4an Parisen Errepublika aldarrikatzen da. Hugo itzultzen da.

1871.
Parisen diputatu hautatua, Burdeoseko Batzarrean dimisioa aurkezten du.

1872. Bere semea, Charles, hiltzen da. Komuna. Hugo, Bruselasetik kanporatua, Luxenburgon babesten da. Legegile hauteskundeetan galtzen du. “L’année terrible” (Urte ikaragarria). Guerneseyrako irteera “Quatre vingt-treize” obra idazteko asmoz (Laurogeita hamahiru).

1876.
Senadorea. “Comunards”-en amnistiaren alde.

1877.
Mac-Mahon Mariskalak, Errepublikaren presidentea lehendakaria zenak, antolatutako kolpe estatuaren ahaleginaren aurkako borroka. “L’histoire d’un crime” (Hilketa baten istorioa), argitalpena.

1878.
Abuztuaren 27 eta 28ren bitarteko gauean, Victor Hugo garun-kongestioa izan zuen. Guerneseyra joaten da azarora arte atseden hartzeko asmoz.

1880.
Amnistia orokorrarako botoa.

1881. Victor Hugoren urtebetetzearen omenez manifestaldia. 1883. Juliette Drouet hiltzen da.

1885. Maiatzaren 22an Victor Hugo hiltzen da. Hileta-elizkizun nazionalak bere omenez, hirugarren Errepublikarengatik.